

Fraide horren jarraikariei eman zieten joakimitak izena. Horren pentsamenduan oinarrituz, *izpiritualismoaren eta *milenarismoaren bidetik abiatu ziren joakimitak. XIII. eta XIV. mendeetan aski indartu eta zabaldu ziren joera horiek frantziskotarren artean batez ere.

Jôdô

Amidaismoa edo *Amida budismoa ere esan ohi zaio.

Budismoaren forma zabalduena horixe da Japonian. 17.000.000tik gora dira Amida budismoaren jarraikiak, lau *sektatan banaturik. Txinatik sartu zen Japoniara, eta Honen-ek eratu zuen XII. mendean erlijiozko mugimendu gisa.

Jodo izenak "Lur garbia" esan nahi du: hau da, Amidaren paradisia. Hortxe birjaioko omen dira fededunak. Amida salbatzailea eta errukiorra da; fededunak behin eta berriro horren izena errepikatu behar du, bere onginahiez salba dezan betirako.

Ik. Budismoa.

Joga

Ik. Yoga.

Jondoni

Ik. Santua.

Josafat-eko zelaia

Sin.: Josafateko ibarra

Ez da lurralde jakin baten izena. Josafat hitzak zera esan nahi du: "Jahve-k juzgatu du". Hortik dator, Joel-en 4,2 testuaren arabera, Jainkoak azken egunean guztien judizioa egingo dueneko zelaia adieraztera.

Ik. Azken judizioa; Gerorengoak.

Josefinismoa

Austriako enperadore Jose II.ak (1765-1790) ezarritako erlijiozko erreforma, batez ere estatuaaren eta Eliza Katolikoaren arteko harremani buruzkoa. Eliza-barruko hainbat arazo zuzentzeko eskumena estatuari eman zion, aita santuaren eskumena arimako gauza hutsetara bihurtuz, eta horren dokumentuei zentsura ezarri. 1781eko erlijiozko Haizugo-ediktua bidez eskubideak finkatuaz gain, erlijio-askatasuna edo -tolerantzia aldarrikatu zuen.

Ik. Estatu; Erlijiozko tolerantzia.

Jubileu(ko) urtea

Sin.: Urte santua

Judaismoako erakunde sozial-erlijiozko-

-juridikoa zen (Leb XXV), berrogeitamarretik behingo urtean jopuei askatasuna eman behar zitzaienekoa eta alorrak lehenengo jabeei itzuli behar zitzaizkienekoa. Era berean, zorrak barkatu behar zituzten hartzekodunek eta abereei atsedena eman behar zieten urte horretan. Neurri handi batez, erlijiozko funtsa zuen jubileuaren erakundeak, Jainkoaren *munduarekiko eta *ondasunekiko jabetasuna aitortzen bait zuen.

Eliza Katolikoak hogeitabost urtegarrenero ospatzen du bere jubileu-urtea edo urte santua, Kristauen bihotz-berrikuntzaren eta bekatuaren barkamenaren garai gisa; urte horretan indulgentzia edo *barkamen bereziak eskaintzen ditu aita santuak.

Edozein urte santuri ere jubileu-urtea esan ohi zaio.

Itun Zaharreko jubileuak zer esanik behar luke gaurko amistiaren erakunde juridiko-politikoari buruz.

Ik. Urte santua; Judaismoa.

Juda

Ik. Israel.


Judaismoa

Judu-Herriaren erlijiozko sinesbidea eta ihardunbidea adierazten ditu hitz horrek. Salomon hiltzean eta horren erreinua bitan banantzean, hegoaldeko erreinuaren Juda izenetik dator, berak gorde bait zuen garbienik eta zintzoenik, Babiloniako erbestaldian eta gero berriro Palestinara itzuli ondoren, Israel Herriaren erlijiozko eta kulturazko tradizioa. Ik. Israel.

Abraham eta haren ondoko Isaak eta Jakob *patriarka edo aitalehenengan du judaismoak bere jatorria, Jahvek Abrahamekin egin omen zuen elkargoan, zeinaren ezaugarria eta zigilua *erdaikuntza bait zen, gaur oraindik judu ortodoxoek betetzen dutena.

Judaismoa, ordea, *fundazio-erlijiotzat hartzen dute; eta Moise horren benetako fundatzaile edo eratzaitzat: Moisetar erlijioa ere esaten da, hain zuzen ere. Berari zor zaio judaismoaren oinarritzko irakasbidea, Jainkoak mendian agertu omen ziona, baita berari dagokio Israel Herriaren funtsezko egituraketa ere: Hari egozten zaizkio, ondorioz, Israelen tradizio sozial, etiko eta erritozkoaren funtsa eta erakuntza.

Moiseri egotzi izan dizkio, hain zuzen, Israelen tradizioak Bibliako lehen bost liburuen --*Pentateukoaren-- egiletasuna: horietan aurkitzen da judaismoaren kode sozial



Judaismoa munduan

eta erlijiozkoaren muina; horixe da aurrenik *Tora(h) edo legeen legea.

Ordutik gaur arte landuz eta osotuz joan den tradizio etniko-kulturazko-erlijiozko horri deritza, beraz, judaismoa. Ik. Erlijio-fundatzailea.

Israel Herriak historian zehar bizi eta jasan izan dituen hainbat gorabehera eta garai ezberdinei loturik dago judaismoaren bilakaera: basamortuko garaia, batez ere Moiseren gidaritzapean; Palestinan kokatzea eta juezen tribu-erregimena; Saulek eraikitako monarkia eta horren bitan banantzea, Salomonen heriotzaren ondoren; Babiloniako erbestaldi edo gatibaldia; Pertsiar, Syriar eta Erromatar Inperioen, bata bestearen ondokoen, menpekotasuna; Jerusalem birrintzea Titoren eskuetan (K.o. 70) eta diaspora luzea; *sionismoaren sorrera (XIX. mendean) eta Israel estatu modernoaren eraikuntza (1948). Ik. Babiloniako gatibaldia.

Gertakari handi horien inguruan, Judaismoaren bilakaeran hainbat garai bereizi ohi dira:

a) Patriarkala: Abiaburuz *politeismoa baztertu eta Abrahanean Jainkoaganako fedean eta elkargoan (*itunean) da oinarritzen erlijio berria.

b) Moisetarra (eraikuntzakoa): Egiptotik ateratzearen eta *basamortuko bizialdiaren esperientziaren barruan, eta Moisek *mendian hartutako agerkundearen gainean, Israel Herriaren eta Jahveren artean ituna berritzen dute eta horren eskakizun etikoen, erritozkoen eta sozialen arabera, Herri hautatuaren egitura eta bizimoldea eratzen.

c) Profetikoa: Monarkia bakarraren erortzearen eta erbestalditik itzultzearen artean, *profetek jotzen dute eginkizun apartekoa Israelen fede monoteista zaintzen,

justizia soziala eta etikoa aldarrikatzen eta Herriagan *Mesiaren itzaropideari eusten.

d) Berreraikuntzakoa: Erbestaldiaren ondoren, Esdra eta Nehemiaren eskutik, judaismoaren oinarriko erakundeak berritzen dituzte: Pentateukoa (edo Tora(h)) idatziz finkatua), Jerusalemgo jauretze edo tenplu berreraikia eta *sinagoga. Eta horien inguruan sortzen dira hainbat *ministeritza edo zerbitzu ere: apaizak eta izkribak bereziki.

e) Talmudikoa: Jerusalemgo tenplua birintzean eta Herria sakabatzean, *errabinoak eta Toraren jakitunak nagusitzen dira, sinagogaren inguruan elkartzen diren elkarte sakabanatuetan.

Lehenagotik landuz zetorren Toraren iruzkineko tradizio ahozkoarekin batera, interpretazio-literatura ugaria ere sortzen dute, egunean eguneko arazoentzako erantzunak han bilatu nahian: Midrax deritza horrelako literaturari. Eta Toraren inguruko eta era askotako tradizio eta iruzkin horiek, gorputz bat osatzen dute, *Talmud deritzana. Horretan oinarritzen da azken batez judu fededunaren sinesbidea eta ihardunbidea eta Talmud-a bera da judu-elkarte sakabanatuen lokarria.

Era filosofikoz eta sistematikoz Maimonide-k laburbildu zuen 13 puntutara Talmud-eko jakinduria eta juduaren fedea.

f) Mistikoa: Erdi Arotik hasita, eta Aro Modernoan, juduek Europako leku ezberdinetan jasan dituzten eraso eta jazarpenen tartean, joera mistikoak eta Liburu Santuen adierazpen kabalistikoa nagusitu ziren. Horren lekuko nagusi dira Zohar izeneko Pentateukoaren iruzkin alegorikoa eta Hasidim izeneko mugimendu pietista. Ik. Kabala; Pietismoa.

g) Erreformakoa: XIX. mendetik hasita, mundu modernoari egokitzera jotzen du judaismoak, bizi izandako *ghetto soziala eta kulturala baztertuz, eta *sekularpen modernoaren eskakizunei erantzunez. Horren ondorioa da *sionismo moderno. Hala ere, bada joera garrantzizkoa, *ortodoxia tradizionalari eutsi nahi diona.

Judaismo tradizionalaren funtsezko puntuak dira honako hauek: 1. Jahvek hautatutako Herria dela Israel, horrekin zigilaturiko itunaren bidez; 2. Jainkoa bakarria dela, mundu osoaren egile eta aita; 3. Moiseri Jainkoak egindako Toraren *agerkundera; 4. *Hilezkortasuna, hilen *piztuera eta *heriotzondoko ordaina; 5. Mesiaren etorreraren itzaropena. Ik. Monoteismoa.

Judaismoak ez du *sakramenturik; baina bai funtsezko *sarbidapen-errittoa: *erdainkuntza. Bestalde, gizon-emakumeek damuaren,

otoitzaren, Toraren irakurtzearen eta entzutearen, eta egite onen bidez lortuko omen dute salbamena. *Zapatuaren ospatzeaz gain, urtean zehar hainbat jai erlijiozko ditu judaismoak: bereziki, urteberrikoa (Rox ha-Xanah), *Yom Kippur (edo espiazio-eguna), Pessah (edo Bazkoa), Etxolen jaiak.

Erljiozko erakundeen artean, garai batean hain garrantzi handikoak izandako *apaizak, Jerusalemgo tenplua eta bertako opariak galdu egin ziren halabeharrez, Jerusalem birrintzean, eta jauresleku ia bakarria sinagoga bihurtu zen; era berean, garai batean halako protagonismoa eduki zuen profeten erakundea galdua dago antzinatik.

Ik. Erljioa eta erlijioak; Profetismoa; Jerusalemgo tenplua; Jainko-herria; Itun Zaharra; Biblia.

Paulo Agirrebaltzategi

Judatarra

Juda erreinuko, *Israel erreinutik bereizi zenekoko, biztanlea.

Judizioa

Ik. Hilien judizioa; Azken judizioa; Justizia.

Judua

Sin.: Judutarra

Babiloniako erbestaldiaren ondoren, Abrahamen ondorengo guztiei zegokien izen hori, lehenagoko israeldarrak edo hebraitarak izenekoek; gaur israeldarren beste izen bat da, batez ere alderdi etniko eta erlijiozkoetik, eta ez politikotik, begiratuta. Judutarra ere esaten da.

Izenlagun gisa, *judaismoaren erakunde sozio-erlijiozkoek buruz erabiltzen da.

Judu-aztoa

Ik. Ghettoa.

Judu-kristauak

Lehen alditako Elizan, orduko Palestina-ko kristauak, judaismotik *kristautasunera aldatuak. Horiengandik sortu zen kristau guztientzako Moiseren legea --bereziki *erdainkuntza, etab.-- ezarri nahi. Horregatik judaizanteak deitura eman zieten.

Ik. Jerusalemgo apostoluen Kontzilioa; Legea.

Judutarra

Ik. Judua.